## Abanto Zierbenako Udala

**Abanto Zierbenako SUA ELC 01 sektorearen birpartzelatze-proiektua.**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2015eko abenduaren 10ean honako erabaki hau hartu zuen:

1. Onestea Abanto Zierbenako SUA ELC 01 sektorearen birpartzelatze-proiektua (idazketa-taldeak 2015eko azaroaren 25ean egina) hasieran onestearen inguruan aurkeztutako alegazioen ebazpen-proposamena.

2. Erabat onestea Abanto Zierbenako SUA ELC 01 sektorearen birpartzelatze-proiektua, Parque Tecnologico de Bizkaia SAk eskatuta, «Pablo Estefanía Angulo y otros» arkitektoek 2015eko abenduan idatzitako dokumentuarekin bat etorriz. Dokumentu horretan sartu dira birpartzelazio-proiektua hasieran onesteari eta ofizioz egin beharreko aldaketei aurkeztutako alegazioak erabat edo zati batean onesteren ondoriozko aldaketak.

3. Abanto Zierbenako SUA ELC 01 sektorearen birpartzelatze-proiektua behin betiko onesteko erabaki hau argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, lurralde historikoan gehien saltzen diren egunkarietako batean eta udaletxeko iragarki-taulan.

4. Birpartzelatze-proiektua formalizatzea, eskritura publikoa emanda edo administrazio-dokumentua igorrita legez ezarritako irmotasun eta baldintzekin bat etorriz, beti ere, Hiri Kudeaketaren Araudiko 174. artikuluan eta hirigintza-egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeko araudia onesten duen uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuaren 6 eta 7. artikuluetan jasotakoa betetzeko.

5. Birpartzelatze-proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzeko eskatzea.

6. Erabaki honen berri ematea interesdunari, alegazio-egileei (idazketa-taldeak 2015eko azaroaren 25ean idatzitako ebazpen-proposamena jakinarazita) eta I. eranskinean zehazten diren jabeei eta birpartzelatze-proiektuan interesa dutenei.

Abanto Zierbenan, 2015eko abenduaren 14an.—Alkatea, Maite Etxebarria Azpiolea

(II-6900)

## Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana

**Proyecto de Reparcelación del Sector SUA ELC 01 de Abanto y Ciérvana.**

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada con fecha 10 de diciembre de 2015, adoptó el siguiente acuerdo

1.º Aprobar la propuesta de resolución de las alegaciones presentadas en relación con la aprobación inicial del Proyecto de Reparcelación del Sector SUA ELC 01 de Abanto y Ciérvana emitido por el equipo redactor del proyecto de reparcelación en fecha 25 de noviembre de 2015.

2.º Aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación del Sector SUA ELC 01 de Abanto y Ciérvana a instancias del Parque Tecnologico de Bizkaia S.A. de acuerdo con el documento redactado por los arquitectos Pablo Estefanía Angulo y otros en fecha diciembre de 2015 en el que se incorporan las modificaciones consecuencia de la estimación íntegra o parcial de las alegaciones formuladas en relación con la aprobación inicial del proyecto y modificaciones a introducir de oficio en el proyecto de reparcelación.

3.º Publicar en el «Boletín Oficial de Bizkaia» el presente acuerdo de aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación del Sector SUA ELC 01 de Abanto y Ciérvana en un diario de mayor tirada del territorio histórico y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

4.º En cumplimiento de lo previsto en el artículo 174 del Reglamento de Gestión Urbanística y los artículos 6 y 7 del Real Decreto 1093/1997, de 4 de julio, por el que se aprueba el Reglamento sobre inscripción en el Registro de la Propiedad de actos de naturaleza urbanística, proceder a la formalización del Proyecto de Reparcelación mediante el otorgamiento de escritura pública o la expedición de documento administrativo con las solemnidades y requisitos dispuestos legalmente.

5.º Instar la inscripción del Proyecto de Reparcelación en el Registro de la Propiedad.

6.º Notificar el presente acuerdo a la interesada , a los alegantes con traslado de la correspondiente propuesta de resolución del equipo redactor de fecha 25 de noviembre de 2015 y a los propietarios e interesados en el proyecto de reparcelación que se relacionan en el anexo I.

Abanto y Ciérvana, a 14 de diciembre de 2015.—La Alcaldesa, Maite Etxebarria Azpiolea

(II-6900)

## Larrabetzuko Udala

**Euskara ikasteko laguntzeei buruzko zuzentarauak**

Larrabetzuko Udalak 2015eko urriaren 28ko ohiko batzarrean behin-behineko izaeragaz, euskara ikasteko diru-laguntzeei buruzko zuzentarauak jaotzen dituen Ordenantza hasierako onarpena egin eban eta espedientea 30 egunez jente-aurrean egon eta gero horri inolako alegazinorik egin barik, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluari jarraituz aitatutako akordioa behin betiko bihurtzen da eta testu osoa iragarki honetan I eranskin lez argitaratzen da.—Larrabetzun, 2015eko abenduaren 10ean.—Alkatea, Iñigo Gastelu Bilbao

I ERANSKINA

**LARRABETZUKO EUSKARA IKASLEAK DIRUZ LAGUNTZEKO ZUZENTARAUAK ONARTZEN DAUZEN ORDENANTZEA**

**1. artikulua.—*Diru-laguntzearen xedea***

Ordenantza honen xedea honakoa da: Homologatutako/gaitutako zentroetan Euskararen alfabetatzerako eta euskalduntzerako ikasketak egiten dituzten Larrabetzuko auzokide ikasleei dirulaguntza emateko zuzentarauak onartzea. Honekin beste erakunde publikoek ematen dituzten diru-laguntzak osatuko dira.

## Ayuntamiento de Larrabetzu

**Bases reguladoras para las ayudas al estudio del Euskera**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el día 28 de octubre de 2015, con carácter provisional aprobó inicialmente la Ordenanza por la que se aprueban las bases reguladoras para las ayudas al estudio del euskera, habiendo sido expuesta al público por un plazo de 30 días sin que se haya formulado alegación alguna, procede elevar dicho acuerdo a definitivo según lo establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y que se adjunta como anexo I al presente anuncio.—En Larrabetzu, a 10 de diciembre de 2015.—El Alcalde, Iñigo Gastelu Bilbao

ANEXO I

**ORDENANZA POR LA QUE SE APRUEBAN LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS A LOS ALUMNOS DE EUSKARA DE LARRABETZU**

**Artículo 1.—*Objeto de la subvención***

Es objeto de la presente Ordenanza la aprobación de las bases reguladoras que rijan la concesión de subvencines a aquellos vecinos de Larrabetzu que estudien para la euskaldunización y alfabetización de euskara en alguno de los centro habilitados/homologados al efecto, complementando al efecto las subvenciones otorgadas por otras entidades públicas.

cve: BAO-BOB-2015a243

Ez dira diru-laguntzaren objektu izango:

— Postgradu, doktoretza, master, karrera edo antzeko ikasketak edota dagoeneko diru-laguntza duten HABEren dependenteak diren euskaltegietan egindako ikasketak.

— Ez dira finantziatuko barnetegietan egindako ikasketen mantenu edo mantenimendu kostuak.

**2. artikulua.—*Subjektu onuradunak***

Diru-laguntza honen onuradunak izan daitezke euskara ikasten duen Larrabetzuko edozein auzokide beti ere hurrengo betekizunak betetzen badira:

— 16 urte baino gehiago izatea.

— Urtebeteko aurrerapenaz Larrabetzun enpadronatuta egotea.

— Matrikulazioa egin eta kurtso amaierararte emandako orduen gutxieneko %80ra joatea.

— Diru-laguntza eman den kurtsoa gainditzea.

— Eskatutako mailagatik aurretiaz diru-laguntzarik ez jaso izana.

**3. artikulua.—*Diruz lagundu leitekezan gastuak eta diru-laguntzearen zenbatekoa***

1. Diru-laguntzaren egitatea euskara kurtsoak homologatutako zentroetan benetan gauzatzea da. Diru-laguntza hau Txorierriko Zerbitzu Mankomunitateak ematen duena osotuko du.

2. Diruz-lagunduko diren gastuak hurrengoak dira:

a) Matrikularen %100erarte: langabezian dauden edo oinarrizko errenta edo gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten auzokideak.

b) Matrikularen %75erarte: beste ikasle guztiak.

3. Diru-laguntza honek bete egiten du beste Administrazio Publikoetatik objektu berdinerako ematen diren diru-laguntzak ordenantza honetan jasotzen diren portzentaietararte.

4. Diru-laguntzaren gehieneko kopurua: 600,00 euro.

**4. artikulua.—*Eskabideak eta aurkezteko epea***

Diru-laguntzaren eskaria aurkeztu daiteke Udaletxean, bulego orokorraren ordutegian, Alkateari zuzenduta. Eskariari hurrengo dokumentazioa gehitu behar izango zaio:

a) Orokorrean:

— Eskatzailearen identifikaziorako dokumentua.

— Matrikula egin izanaren originala edo konpultsatutako kopia. Barnetegien kasuan, matrikularen desglosea aurkeztu beharko da.

— Kontu korronte zenbaki bat eta kontuaren titulartasuna.

— Zentruaren parte-hartze ziurtagiria.

— Diru-laguntza jasotzearen inguruko Txorierriko Zerbitzu Mankomunitatearen Ebazpena.

b) Eskatzaileak Ordenantza honen 3.2.a) artikuluak deskribatzen dituen egoeraren baten aurkitzen bada, aurretiazko informazioaz gain hurrengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko du:

— Langabezian daudenek, Lanbidek igorritako langabezi txartelaren konpultsatutako kopia.

— Bermatutako Diru-sarrerarako Errenta jasotzen dutenek edo gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituztenek horren inguruko dokumentazio justifikatiboa.

Diru-laguntza hau eskatzeko epea izango da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete bateko epean.

No serán objeto de subvención los estudios realizados en:

— Los cursos realizados de postgrado, doctorados, master, carrera o similares ni los que se realicen en euskaltegis dependientes de HABE que ya se encuentren subvencionados.

— No se financiarán el coste de manutención/mantenimiento en los cursos realizados en barnetegis.

**Artículo 2.—*Sujetos beneficiarios***

Podrán ser beneficiarios de estas Ayudas las personas vecinas de Larrabetzu estudiantes de euskara que cumplan con los siguientes requisitos:

— Ser mayor de 16 años.

— Estar empadronado en Larrabetzu con una antelación mínima de un año.

— Deber de asistencia al 80% de las horas impartidas desde la fecha de su matriculación hasta la finalización del curso lectivo.

— Haber superado el curso por el que se solicita la subvención.

— No haber recibido anteriormente subvención por el nivel solicitado.

**Artículo 3.—*Gastos Subvencionables e importe de la subvención***

1. El hecho subvencionable de la subvención es la realización efectiva de cursos de euskara en centros homologados. Estas ayudas complementarán las percibidas de la Mancomunidad de Servicios de Txorierri por los alumnos.

2. El gasto subvencionable será:

a) De hasta el 100% del precio de matrícula para aquellos vecinos del municipio que se encuentren o bien en situación de desempleo o bien percibiendo renta básica o ayudas de emergencia social.

b) De hasta el 75% de la matrícula en el resto de los alumnos.

3. La subvención cubre el porcentaje no percibido desde otras Administraciones Públicas con el mismo objeto y hasta los porcentajes establecidos en el párrafo anterior.

4. Cuantía máxima de la subvención: 600,00 euros.

**Artículo 4.—*Solicitudes y plazo de presentación***

Las solicitudes de subvención podrán presentarse, en horario de oficina, en las oficinas generales del Ayuntamiento de Larrabetzu, dirigida al Alcalde. Al impreso se acompañarán los siguientes documentos:

a) En general:

— Documento acreditativo de la identidad del solicitante.

— Original o fotocopia compulsada de haberse matriculado. En el caso de internados deberá aportarse el desglose de la matricula.

— Junto con la solicitud establecer un número de cuenta y nombre del titular de la misma.

— Certificado de asistencia del centro.

— Resolución de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri sobre la obtención de la subvención.

b) Aquellos solicitantes que se encuentren en alguna de las situaciones establecidas en el artículo 3.2.a) de esta Ordenanza deberán además aportar:

— Para los desempleados, copia compulsada de la tarjeta de desempleo emitida por Lanbide.

— Los perceptores de Renta de Garantía de Ingreso o Ayudas de emergencia social deberán aportar dokumentación justificativa de la misma.

La presente subvención se solicitará en el plazo de un mes desde la publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de la convocatoria de la presente subvención.

cve: BAO-BOB-2015a243

**5. artikulua.—*Prozedurea***

Udalak izapidetuko dauz eskabideak, beti be beharrezko dokumentazino guztia erantsiz. Oinarri honeetan ezarritako diru-laguntzen kontzesinoa eta, halan bajagoko, ezeztapena alkate jaunaren beren-beregiko ebazpen bitartez egingo da, beti be Udalaren Kultura, Euskara eta Kirola Batzorde Informatiboa izango dan organo izapidetzaileak halan proposatuta.

Prozedurearen ganean ebazteko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko azkenengo egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Herri Administrazinoen Araubide Juridikoari eta Administrazino Prozedura Erkideari buruzko zemendiaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritakoagaz bat etorriz, Administrazinoak eskabidean akatsen bat igarri ezkero, akatsa zuzentzeko 10 eguneko epea emongo dau.

Diru-laguntzino honeek ez dira lehiakortasun araubidean emongo; izan be, modu puntualean sortzen dira jaubeen beharrizan eta preminen arabera. Diru-laguntzen kontzesinoaren ganean ebazteko jarraituko dan hurrenkerea eskabidea eraz aurkeztu dan ordena bera izango da. Ez da lehiakortasun araubidea aplikatuko, diru-laguntzea jasoteko eskubidea eukiko dabelako oinarri honeetan ezartzen diran baldintzak beteten dabezan eskabide guztiek.

**6. artikulua.—*Diru-laguntzearen kudeaketea***

Diru-laguntzea eskatuko da deialdia argitaratzen dan aurreko ekitaldiari begira; horretarako, egingo diran gastuak aurreikusiko dira.

Behin interesdunek diru-laguntzea eskatuta, Larrabetzuko Udalak egiaztatuko dau eskatzaileek behar lez ordaindu dabezala aurkeztutako ordainagiriak eta fakturak. Beharrezko justifikazino txostena egingo da alderdi horreen inguruan.

Urteko deialdian diru-laguntzinoa ordaintzeari jagokonez, hori ordaintzeko dagoan beharrezko aurrekontu partidea ezarriko da.

Behin interesdunek egindako ordainketak egiaztatu ostean, Larrabetzuko Udalak diru-laguntzearen %100 ordainduko dau. Ordainketa deialdiaren ekitaldiko aurreko kurtsoaren finantzaziorako izango da, eta hori deialdian zehaztuko da.

**7. artikulua.—*Diru-laguntzearen justifikazinoa***

Justifikazinoaren dokumentazinoa eskabideagaz batera aurkeztu beharko da, urte mugaeguneratukoa baita.

**8. artikulua.—*Laguntzen pilaketea***

Araudi honetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazino publikok helburu bardinerako emoten dauen edozein motatako diru-laguntza edo laguntza eskuratzeagaz. Zentzu honetan, diru-laguntza hau emango da Ordenantzaren 3. Artikuluan ezartzen diren portzentaial bete arte.

**9. artikulua.—*Zigor araubidea***

Diru-laguntza honeri jagokon urratze eta zigor araubidea Diru-laguntzei buruzko zemendiaren 17ko 38/2003 Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da.

**10. artikulua.—*Araubide juridikoa***

Oinarri arautzaile honeetan jasota ez dagoanari jagokonez, udal honen Diru-laguntzeei buruzko Ordenantzeak ezarritakoari lotu beharko zaio, bai eta, ordezko modura, Diru-laguntzen inguruko Legeak eta lege hori garatzeko Arautegia onesten dauen garagarrilaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoari be.

(II-6888)

**Artículo 5.—*Procedimiento***

Las solicitudes serán tramitadas por el Ayuntamiento, adjuntando toda la documentación precisa. La concesión, y en su caso, la denegación de las ayudas previstas en estas bases se realizarán mediante resolución expresa del Sr. Alcalde a propuesta del órgano instructor que será la Comisión Informativa de Cultura, Euskara y Deportes del Ayuntamiento.

El plazo para la resolución del procedimiento será de 3 meses a contar desde el día siguiente al último para la presentación de solicitudes.

En caso de que la administración observe deficiencias en la solicitud en virtud de lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se concederá un plazo de 10 días para su subsanación.

Estas subvenciones no entran en concurrencia competitiva, debido a que se producen de forma puntual en función de las necesidades de los propietarios. El orden de prelación que se seguirá para resolver sobre la concesión de ayudas, será el de presentación de la solicitud en forma, sin que sea de aplicación el régimen de concurrencia competitiva, ya que tendrán derecho a la subvención todas aquellas solicitudes que cumplan los requisitos establecidos en estas Bases.

**Articulo 6.—*Gestión de la subvención***

La subvención se solicitará para el ejercicio anterior al que se publique la convocatoria, haciendo una previsión de los gastos que vayan a realizarse.

Una vez sea solicitada la subvención por parte de los interesados, el Ayuntamiento de Larrabetzu comprobará que los recibos y facturas presentadas han sido debidamente abonados por los interesados solicitantes. De dichos extremos se realizará el correspondiente informe justificativo.

En cuanto al pago de la subvención en la convocatoria anual se establecerá la partida presupuestaria existente para el pago de la subvención.

Se abonará el 100% de la subvención relacionada con el curso inmediatamente anterior al ejercicio de la convocatoria, estableciéndose dicho parámetro en la convocatoria de la subvención.

**Artículo 7.—*Justificación de la subvención***

La documentación de la justificación deberá presentarse junto con la solicitud ya que corresponde al año vencido.

**Artículo 8.—*Concurrencia de ayudas***

Las Ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública. En este sentido, la presente subvención se concederá complementando hasta los importes establecidos en el artículo 3 de la presente Ordenanza.

**Artículo 9.—*Régimen Sancionador***

El régimen de infracciones y sanciones en lo que a esta subvención se refiere será el establecido en los artículos 52 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**Artículo 10.—*Régimen Jurídico***

Para lo no recogido en las presentes bases reguladoras se estará a lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones existente en el Ayuntamiento y supletoriamente a la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y al Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento que la desarrolla.

(II-6888)

cve: BAO-BOB-2015a243